


BERTSOLARIAK

Bertsolarien Txapelketa

(30 - XII - 1962)



AUSPOA LIBURUTEGIA

BERTSOLARIEN TXAPELKETA

(30 - XII - 1962)

AUSPOA LIBURUTEGIA

22

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolosa
Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala, S. J.
Colegio S. Ignacio-Ategorrieta-San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta Atzerrian: 275 peseta
Ongilleak: 350 Ale bakarra: 25 »

BERTSOLARIAK

**BERTSOLARIEN
TXAPELKETA**

(30 - XII - 1962)

AUSPOA LIBURUTEGIA

Depósito Legal S. S. 59/1963
Núm. Registro S. S. 154/1963

Impreso en GRÁFICAS IZARRA - Peña y Gofí, 13
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

ITZ-AURREA

1962-garren urteko bertsolarien txapelketa San Antonio egunean Urkiola-n asi ta urte zarraren bezperan Donostian bukatu zan. Bitarte ortan makiña bat bertso-festa izan da euskal probintzietan.

Ain zuzen ere aurreko sayo oyei zor die bere otsa Donostiko azken sayo sonatu orrek.

Orregatik, Donostiko azken sayo orrek ez du itz-aurrerik bear, bañan on egingo dio liburu oni probintzi bakoitzean egin diran txapelketak zein izan diran jartzeak, baita ere txapelketa bakoitzean azaldutako bertsolariak nor izan diran izendatzeak.

Ala bearrez, ez dira txapelketa oyetan Euskalerrian diran bertsolari guziak agertu, ezta gutxiago ere; bañan agertutako oyeke ere, asko ala gutxi, argi ta garbi erakutsi dute bertsolaritza degula euskeraren indarrik aundiena.

Gañera, azaldutako bertsolaririk geyenak gazteak dira, orain artean ez-ezagunak, beren bertsotako indarra bazterrean gordeta zeukatenak. Ain zuzen ere, orixe izango degu txapelketa auetako ondorenik ederrena: landare berrik erne-aztea.

Ta besterik gabe, ona emen txapelketa bakoitzaren berri:

BIZKAYAN

Garagarrillaren 13-an, Urkiola-n:

Julian Martitegi, Mañari-koa, txapeldun.

German Uriguen, Ermua-koa, bigarren.

Manuel Sarrionandia, Iyorreta-koa.

Frantzisko Mandiola, Mallabi-koa.

Iñazio Urkidi, Iyorreta-koa.

Jose Zabala, Iyorreta-koa (1).

(1) Toki bakoitzean ez degu txapelduna ta bigarrena besterik adierazten.

Uztaillaren 15-an, Mungia-n:

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

Abel Enbeita, Muxika-koa, bigarren.

Pedro Ortuzar, Muxika-koa.

Manuel Basabe, Lumo-koa.

Felix Ortuzar, Muxika-koa.

Pedro Kastrejana, Loiu-koa.

Juan José Uriarte, Errigoiti-koa.

• Nikolas Ibarguengoitia, Muxika-koa.

Eusebio Olalde, Larrauri-koa.

Florentzio Zarraga, Berango-koa.

Uztaillaren 18-an, Markiña-n:

Jose Maria Arregi, Berriatua-koa, txapeldun.

Domingo Iriondo, Markiña-koa, bigarren.

Justo Longarte, Aulesti-koa.

Liborio Urrutia, Ondarroa-koa.

Eusebio Urresti, Elgoibarren bizi dana.

Abuztuaren 12-an, Iyorre-n:

Basilio Pujana, Zeanuri-n jayo ta Bilbo-n bizi dana, txapeldun.

Jose Maria Gurtubay, Lemona-koa, bigarren.

Faustino Etxebarria, Dima-koa.
Jesus Uriarte, Dima-koa.
Meltxor Uribe, Otxandio-koa.
Jose Manuel Arruabarrena, Otxandio-koa.
Juan Ramon Petralanda, Dima-koa.
Ramon Iturriaga, Dima-koa.
Inazio Artetxe, Zeanuri-koa.
Jose Maria Artetxe, Zeanuri-koa.

Abuztuaren 20-an, Gernika-n
(azkenaren aurreko sayoa):

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

(Bilbo-ko azkeneko aukeratuak:)

Juan Mugartegi, Berriatua-koa.
Ireneo Ajuria, Muxika-koa.
Juan Ibarzabal, Markiña-koa.
Balentin Enbeita, Muxika-koa.
Jose Maria Arregi, Berriatua-koa.

(Gañerakoak:)

Julian Martitegi, Mañari-koa.
Jose Alberdi, Mañari-koa.
Basilio Pujana, Zeanuri-n jayo ta Bilbo-n
bizi dana.

Abuztuaren 26-an, Bilbo-n (azken sayoa):

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

Juan Azpillaga, Berriatua-koa, bigarren.

Juan Mugartegi, Berriatua-koa.

Deunoro Sarduy, Muxika-koa.

Juan Ibarzabal, Markiña-koa.

Balentin Enbeita, Muxika-koa.

Jose Maria Arregi, Berriatua-koa.

Ireneo Ajuria, Muxika-koa.

N A P A R R O A N

Uztaillaren 1-an, Errazu-n:

Bautista Madariaga, Arantza-koa, txapeldun.

Migel Arozamena, Lesaka-n jayo ta Astigarraga-n bizi dana, bigarren.

Simon Ibarra, Sunbilla-koa.

Juan Perurena, Goizueta-n jayo ta Arizkun-en bizi dana.

Klemente Ezkurdia, Elizondo-koa.

Inazio Rekondo, Mugaire-koa.

Abuztuaren 19-an, Goizueta-n:

Andres Narbarte "Xalto", Goizueta-koa,
txapeldun.

Manuel Huizi, Arano-koa, bigarren.

Martin Oreja, Errazkin-goa.

Migel Zabaleta, Areso-koa.

Juan Zabaleta, Areso-koa.

Juan Bautista Perurena, Goizueta-koa.

Angel Aldaz, Yaben-goa.

Martin Azpiroz, Areso-koa.

Moises Jaso, Gainza-koa.

Bautista Arribillaga, Leitze-koa.

Agorraren 23-an, Bera-n:

Migel Arozamena, txapeldun.

Migel Zabaleta, Areso-koa, bigarren.

Manuel Huizi, Arano-koa.

Andres Narbarte "Xalto", Goizueta-koa,
txapeldun.

Bautista Madariaga, Arantza-koa.

Martin Oreja, Errazkin-goa.

Martin Azpiroz, Areso-koa.

Juan Perurena, Arizkun-goa.

GIPUZKOAN

Uztailaren 8-an, Bergara-n:

Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa, txapeldun.

Jose Maria Gabilondo, Anzuola-koa, bigarren.

Bitoriano Barrena, Anzuola-koa.

Martin Egileor Alberdi, Osintxu-koa.

Santiago Iparragirre, Errenteri-n jayo ta Eskoriaza-n bizi dana.

Jose Mari Zubinaga, Bergara-koa.

Uztailaren 22-an, Deba-n:

Manuel Uranga, Iziar-en jayo ta Eibar-en bizi dana, txapeldun.

Jose Zubizarreta, Elgoibar-koa, bigarren.

Luis Manzisidor, Deba-koa.

Sebastian Salegi, Lastur-koa.

Tiburzio Zubizarreta, Elgoibar-koa.

Abuztuaren 2-an, Azpeitia-n:

Manuel Lazkano, Azpeiti-koa, txapeldun.

Manuel Olaizola, Zestua-koa, bigarren.

Jesus Azkune, Azpeiti-koa.

Abuztuaren 4-an, Oyartzun-en:

Kosme Lizaso, Oyartzun-goia, txapeldun.

Jose Luis Lekuona "Lexoti", Oyartzun-goia, bigarren. (Au ere Eibarko sayorako aukeratua.)

Frantzisko Etxeberria, Orioren jayo ta Lasarte-n bizi dana.

Jose Usabiaga, Errenteri-koa.

Jose Antonio Lazkano, Donostia-koa.

Santiago Iparragirre (2).

Agorraren 30-an, Beasain-en:

Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki", Lazkao-koa, txapeldun.

Jose Intxausti, Segura-koa, bigarren.

Jose Antonio Aranzadi, Ezkioga-koa.

Jesus Eskisabel, Legorreta-koa.

Gregorio Etxeberria, Abalzisketa-koa.

Jose Antonio Luluaga, Legorreta-koa.

Jesus Alberro, Brinkola-koa.

Jesus Maria Imaz, Segura-koa.

Bizente Mujika, Ormaiztegi-koa.

Jose Tellería, Beasain-goia.

Bitor Agirre, Brinkola-koa.

(2) Santiago Iparragirre onek Bergara-n kantatu zuen eta Oyartzun-en ere bai, bañan ontan bikoteak osatzeagatik bakarrik.

Urriaren 7-an, Tolosa-n:

Kasiano Ibarguren, Lizartza-koa, txapeldun.

Fermin Muñoa, Berrobi-koa, bigarren.

(Au ere Eibarko sayorako aukeratua.)

Jose Garaikoetxea, Lizartza-koa.

Inazio Regillaga, Albiztur-koa.

Patrizio Sarasola, Billabona-koa.

Lazaro Azurmendi, Berastegi-koa.

Azaroaren 11-an, Eibar-en

(azkenaren aurreko sayoa):

Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki", Lazkao-koa, txapeldun.

Joakin Mitxelena, Oyartzun-goa, bigarren.

Domingo Garmendia, Berrobi-koa.

Manuel Lazkano, Azpeiti-koa.

Akilino Izagirre "Zepai", Errezill-en jayo ta Idiazabal-en bizi dana.

Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa.

Jose Luis Lekuona "Lexoti", Oyartzun-goa.

Manuel Uranga, Iziar-en jayo ta Eibar-en bizi dana.

Kosme Lizaso, Oyartzun-goa.

Fermin Muñoa, Berrobi-koa (3).
Kasiano Ibarguren, Lizartza-koa.

Abenduaren 9-an, Ernani-n
(Gipuzkoa-ko azken sayoa):

Joakin Mitxelena, Oyartzun-goa, txapel-
dun.

Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki", biga-
rren.

Domingo Garmendia, Berrobi-koa.

Manuel Lazkano, Azpeiti-koa.

Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa.

Akilino Izagirre "Zepai".

Manuel Uranga.

Jose Luis Lekuona "Lexoti".

(3) Ernaniko sayorako lenengo zortziak auke-
ratu ziran.

GOIZEKO LENENGO SAYOA

Azpillaga

Mitxelena

Zabaleta

Lazkao-Txiki

Mattin

Arozamena

Lopategi

Xalbador

ASIERA TA AGURRA

Irigoyenek: Egun on eta agur Astoria teatro ontan zaudeten jaun eta andre guzioi.

Baita ere radiotik Euskalerra osotik entzuten dauden entzule biotzeko guziaz ere.

Asi baño len eskerrak eman bear dizkiegu bai Bizkayan bai Naparroan ta bai Gipuzkoan txapelketak egin diran errietako Ayuntamentuak, Bizkaiko Diputazioari, Bizkaiko Ahorro-Kaxari, Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialari, eta laguntzen sayatu diran beste askori. Izenak aipatu ezker luzeegi egingo litzake. Laguntasuna besterik arkitu ez baita bazter guzietan.

Emen, nere aurrean, dauzkagu amar bertsolari, Euskalerriko txapelketa ontarako aukeratuak:

Mugaz beste aldetikan etorri zaizkigu Xalbador Urepel-ekoa eta Mattin Ahetze-koa, ezagunak gure artean.

Naparroatikan, Arozamena Lesaka-koa eta Zabaleta Areso-koa.

Bizkaitikan, Lopategi Muxika-koa eta Azpillaga Berriatua-koa.

Gipuzkoatikan, Mitxelena Oyartzun-goa eta Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki".

Gañera, dauzkagu emen gure aurrean orain urte bi egin zan Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketako txapelduna ta bigarrena: Basarri ta Uztapide.

Gaur emen egingo dan bertso-sayo au Auspoa liburu-sortak oso-osorik argitaratuko du magnetofonetik jasota.

Gaur, esan zan aldizkarietan, eman bear zala bertso-paperen sariketako erabakia ere. Bañan pentsatu degu naiko lana izango dala gaurko sayo onekin eta ori utzi degu gero-ra. Noski Txirritaren gorasarrea Ernani-n egiten danean orduan emango da erabakia ta saria. Beraz oraindik bertso-paperak inprentatzen ari diranak bialdu ditzakete Euskal Akademiara amar bertso-paper ale sariketan parte artzeko.

Besterik gabe, luzatu ez dedin dioduna, zotza egingo degu zortzi bertsolarien artean.

Goizean sayo bi izango dira: lenbizikoan ez dira sartuko Basarri ta Uztapide; bigarrengoan bai.

Beraz, lendabizi zotz egingo degu beste zortzi bertsolarien artean. Momentu batean zai egon ia nola ateratzen dan ikusi arte.

(Zotz egin ondoren). Ordena onetan kantatu bear dute:

lenengo Azpillagak,
bigarren Mitxelenak,
irugarren Zabaletak,
laugarren Jose Migel Iztueta Lazkao-
Txikik,
bostgarren Mattinek,
seigarren Arozamenak,
zazpigarren Lopategik
eta zortzigarren Xalbadorrek.

Asteko, lendabizi tokatu zayon bertsolariak, bertsolari guzien izenean agurra botako du.

Beraz, gaur agur bat bakarra izango da Azpillagak egiña, eta orren ondoren asiko da txapelketa.

Azpillagak:

Danen izenen agur, Donosti,
ta berdin Gipuzkotarrak,
agur, Bizkaiko anai-arrebak,
Arabatar ta Naparrak,
mugaz gorunztik etorri diran
frantzes euskaldun bakarrak,
ementxen bildu gaitualako
maitasunaren indarrak,
paradiso bat dirudigu gaur
Donostiko erri zarrak.

Irigoyenek: Beraz, orain txapelketa asiko da. Mesedez bertsolariak errenkadan jarri ditezela tokatu zayen ordenan: lendabiziko, Azpillaga; bigarren, Mitxelena; irugarren, Zabaleta; laugarren, Jose Migel Iztueta "Lazkao-Txiki"; bostgarren, Mattin; seigarren, Arozamena; zazpigarren, Lopategi; eta zortzigarren, Xalbador.

Emen dauzkagu gayak ta sobrea apurtuko degu.

(Sobrea iriki ondoren) Alkarrekin teman egiteko lendabiziko biak etorri bear dute, Azpillagak eta Mitxelenak. Etorri mesedez mikrofono aurrera gayak atera eta ateratzen dezuten araura kantatzera.

AZPILLAGA TA MITXELENA

Asteko, puntu bi bakoitzari jarriko dizkiegu.

Azpillagari:

Kapoirik jan al dezu
aurten Gabonetan?

jolasian ote dabil
ala edo brometan?
egun oyek ditut nik
gogozko benetan,
oso gaizki ibilli naiz
geroko egunetan.

Mitxelenari puntua:

Oso dotorea da
teatro Astoria,

gizonai sortzen zayo
emen umoria
gaurkoan eman baitzayo
bere baloria,
euskaldunez beteta
leku dotoria.

Azpillagari beste puntu bat:

Adanek etzun izan
amagiarrebik,

sekulan ez det entzun
olako egirik,
ez al dezu eduki
ertera oberik?
iñork ez bagenduke
etzegon kalterik.

Mitxelenari:

Iru errege Meltxor,
Baltasar ta Gaspar,

ayek ikusi dituzte
makifia bat izar,
urte joanak iñorentzat
onikan ez dakar,
aik e len ziran gazteak,
oain eongo dira zar.

*Irigoyenek: Ofizioa emango diegu orain
alkarrekin teman egin dezaten.*

*Azpillaga izango da Donostiako guardia
bat, kale-kantoi batean geldi dagoena, eta*

Mitxelena Gipuzkoako erri txiki bateko baserritarra. Ain zuzen ere baserritarra guardia dagoen inguruko kale-ertz batetik bestera asi da pasatzen, ta guardiak, señaleak kolore gorria markatzen duelako, "alto" ematen dio. Iruna bertso.

Azpillagak:

Komeniya dan ertera onek
mereziya du aitzeak,
nik zaitzen ditut Donostiako
kale erdi ta ertzeak,
baserritarren ez-jakiñ orrek
ekartzen ditu galtzeak,
argi gorriyan pasatutzeak
dakazki eriotzeak.

Mitxelenak:

Donosti ontan aguazil auek
daude mesere usteko,
al baldin bada lurreratuta
iñor or ez ekusteko,
beste lanikan ez dadukazu
jornala irabazteko,
gure moduko ez-jakiñari
nondik joan erakusteko.

Azpillagak:

Baserritar au onuntz etorri
aurten Santo Tomasetan,
bere urteko errenta ori
pagatutzeko ustetan,
gero kalia nonai ibilli
berak nai duan klasetan,
alako baten ikasiko du
edukaziyua zer dan.

Mitxelenak:

Errita txarrak ein dizkidazu
litaken bide danea,
ni ez-jakiña nola bai naizen
mintzatu nazu onea,
bañan eskuan artu du gerriyan
zedukan zigor bat mea,
nik pentsatu det berau ez dala
Euskalerriko semea.

Azpillagak:

Zuk esan dezun arrazoi ori
etzate bate gustatzen,
astuak ez du zientzirik,
ori asi naiz kontatzen,
baserritarrak kalera etorri
eta nolanai jostatzen,
kulpaik ez daukan gizaraxua
nola asiko nintzan jotzen?

Mitxelenak:

Obe ziraden ez egin bañan
amenazoaz bai burla,
esaten ziran: eskuan daukat
zigor bat oso mardula,
beste iñorekin oraindik ez det
probatu izan sekula,
nik jo-leku ona detela ta
neroni jo bear naula.

Irigoyenek: Orain bakoitzari lau puntu emango dizkagu bertso bat zortziko txikian osatu dezaten.

Azpillagari asteko: lana, jana, dana, bana. Berriz diot: lana, jana, dana, bana.

Azpillagak:

Falta du zezerbait
ta egin bear lana,
inguratuko bada
eguneko jana,
ortatik etortzen da
etorkizun dana,
nik emango nioke
danei atxur bana.

Irigoyenek: Mitxelenari: miña, griña, antziña, danboliña. Berriz diot: miña, griña, antziña, danboliña.

Mitxelenak:

Garai bateko oitura
genduan antziña,
orduko esaera zan:
“beti tanboliña”,
ura emendik juanak
ematen nau miña,
oso aztu baitzaigu
lengo zarren griña.

Irigoyenek: Orain bakoitzari gai bana emango diegu. Lendabiziko Azpillagari, eta ematen zayon gayaren gañean kantatu bear ditu iru bertso.

Or aurrean daukazu sobre bat amar milla pezetakoa. Amar milla pezeta oriek gaur emen txapeldun gelditzen danarentzat izango dira. Ta baldin zuretzat gertatuko balira, diru orrekin zer egingo zendukean kantatu bear dezu iru bertsoetan.

Azpillagak:

Onuntz etorri ordurako gu
jarriak giñan kezketan,
amar bat milla pezeta ortxe
jarriak daude sobretan,
amar bertsolaritatik danak
estimatuak benetan,
neretzat izan ezkerro danak
gastauko ditut festetan,
bañan nolatan izango ez dan
zertan egin ametsetan?

Gastatze orrek izaten ditu
txit ondoren itxusiak,
ta pena aundia ematen bai-du
lanian irabaziak,
neri ezpaidit afiziyorik
iñoiz eman gordetziak
iñork eztaki zer etorkizun
izango duan atziak,
emen utzita juanak dira
orain arteko guziak.

Gu beti izan genezakela
ejenpluaren peskisan
batzuk dutena kalean eta
beste batzuek elizan,
oso jakintsu aundi batekin
ni lenguan egon nintzan,
ta arrek ere itz eder auek
eman zizkidan eskeintzan:
ondo gastatutako diruen
damurik beñere ez izan.

Irigoyenek: Mitxelenak beste iru bertso. Atzo zure semetxo bakarra trenak arrapatu zuan ta gaur erdi illean dago. Ama Birjiña Arantzazukoari otoitz egiten diozu aurrarentzat osasuna eskatuaz. Iru bertsoan.

Mitxelenak:

Pentsa zazute zer naigabea
beraz daukan Mitxelenak,
gure etxera eldu dirade
iñongo naigabe denak,
geren aingeru orrekin gindun
geuren zoririk onenak,
momentu batez negartu gera
len poz-irritan geundenak ,
seme txiki bat izaki eta
ua arrapatu nau trenak.

Oraindik ere bizi da bañon
naiko lanak, bai, baditu,
nik nai nukena da beñepian
bera bizirik arkitu,
zeru gañeko Aman bitartez
Arantzazuk oik or ditu,
zenbait naigabe-atsekabeak
lezazkienak ornitu,
ni oraintxen naiz premian eta
gaur emango al ditu!

Nik eztadukat ezer gordetzeik
eta dauzkaten guzirik
Ama, zuretzat dauzkat biotzez
gaur emen erakutsirik,
zorion danak galduta dauzkat
semeik gabetan utzirik,
beste laguntzik ez det eskatzen
ta ez det bear besterik,
eriotzean deten seme oi
gorde dezala bizirik.

*Irigoyenek: Azpillagak eta Mitxelenak bu-
katu dute eta orain tokatzen zaye Zabaleta
eta Jose Migel Iztueta Lazkao-Txikiri. Etorri
mesedez ateratzeko gayak.*

ZABALETA TA IZTUETA

Irigoyenek: Zabaletari puntua:

Aita Santu gurea
gaxorik daukagu,

erregutzen ai bearra
uda eta negu,
ari esan bearra
zerbait guk degu,
sendatzeko in dezagun
guziak erregu.

Lazkao-Txikiri:

Asi dira angulak
zertxobait merkatzen,

bañan guri jaterik
etzaigu tokatzen,
fiñak diranik oso
ez bai-det pentsatzen,
Aginaga-ko izenez
Frantzitik ekartzen.

Zabaletari:

Kanpoan otz dago ta
emen dago epel,

baita eskutan ere
makiña bat papel,
Donosti zabalen ere
bada franko hotel,
jendia serbitzeko
ez gañea oso motel.

Lazkao-Txikiri:

Donostian oraindik
egiten da euskeraz,

euskaldun batek ori
ar bedi aukeraz,
oraindik sayatzen dira
gure mintzoeraz,
al dezuten guztiak
ortan segi beraz.

Irigoyenek: Ofizioa emango diegu orain alkarrekin teman egin dezaten. Iruna bertso.

Zabaleta izango da pistolerua, eta Lazkao-Txiki banku batean enpleatua dagoena. Sartu da pistolerua bankuan ta bertan arkitzen dan enpleatuari, pistola eskuan duela, bankuko diru guzia eskatzen dio.

Zabaletak:

Ateraldi bat orain izan du
Zabaletaren buruak,
ikusirikan ikasitzeko
daduzkagun liburuak,
zu or zaude banku batian
kanpo eta inguruak,
ilko zaitut, ekarri izkazu
zeorrek dauzkazun diruak.

Lazkao-Txikik:

Gizon alperrak sumatutzen du
makiñatxo bat eskola,
bañan pentsatu diruak zaintzen
fintasunean nagola,
ik eskuetan ekarri arren
ikaratzeko pistola,
bizirik kentzen ez baldin banak
ez dit emango iñola.

Zabaletak:

Modu onetan zeren bankuan
trantze txarrian jartzia,
eta artzazu nik esan arte
zuk e ba pazientzia,
eta pentsatu zu or zaudela
diruan jaun da jabia,
bañan aguro pistolarekin
kenduko dizut bizia.

Lazkao-Txikik:

Pistolarekin egin nai dezu
emengo diruen jabe,
lanian geyo sayatutzea
zuk ez al zenduke obe?
igertzen dizut zure barrua
egitnik etsaizko labe
gelditu biazu dirurik gabe
eta itzalaren jabe.

Zabaletak:

Zu, bankerua, jarri dirazu
orain sekulako lana,
bañan alare egin beazu
pistoleruan esana,
eta orduan ongi izateko
zuk izango dezu dana,
diruak neri ekarri eta
ingo'itegu erdibana.

Lazkao-Txikik:

Nere etsai au maltzurkerian
ni engañatutzen dabil,
lendabizitik zakar asi zait
ta orain jarri zait umil,
bañan nola're nerezikua
gaur ez dek egingo, mutil,
iri ezertxo gaur utzi bañan
kasik nayago diat il.

Irigoyenek: Zabaletari lau puntu jarriko dizkiogu zortziko txikian bertsoa osatu dezan: larri, sarri, jarri, alkarri. Berriz diot: larri, sarri, jarri, alkarri.

Zabaletak:

Zutikan emen gertatzen naiz
orain ni're franko larri,
ta juraduak erabakiya
artuko baitute sarri,
eta orain emen atakak
iten dazkigue jarri,
eta guk ziri galantak sartu
dizkagu emen elkarri.

*Irigoyenek: Lazkao-Txikiri: lurra, elurra,
egurra, bildurra. Berriz diot. lurra, elurra,
egurra, bildurra.*

Lazkao-Txikik:

Atari ondoraño
egiñ du elurra,
txuriz jantzi digu gaur
beltz zeguen lurra,
neguari aldez aurrez
artu oin bildurra,
ta ez daukazutenak
ekarri egurra.

Irigoyenek: Orain bakoitzari gai bana emango diegu len bezela iruna bertso kantatu ditzaten.

Lendabiziko Zabaletari: Zu zera ez aitarik ta ez amarik sekula ezagutu ez dezun sasiko aur bat. Zure guraso ez ezagunei iru bertso kantatu bear dizkiezu.

Zabaletak:

Nola nagoen orain emen
jende askon inguruan,
bañan alare gurasoak nik
oraindik dauzkat buruan,
badakizute olako batek
zer ibillera duan,
desio diet gerta ditezela
beintzat biek zeruan.

Egunen baten jarrik izango
nituen lotsa ugarik,
bañan gauz abek izaten dira
mundu onetan nabarik,
ta ayentzako nik ez daukat
ezer e esan bearrik,
mundura sortu nintzan ni ere
eta ez daukat kulparik.

Nere gurasuak gerta ziran
ba ondotik juateak,
ta neretzako utzi zituzten
bizi guziko nekeak,
mundu onetan irauten badit
osasun eta pakeak,
besten Jaunak ordainduko dazkit
emen indako nekeak.

Irigoyenek: Lazkao-Txikiri gaya. Urtebete da ezkondu ziñala, ta orain illabete zure emazteak lenengo semea ekarri zizun munda: Bañan aurra elbarria da eta gañera itxua noski.

Lazkao-Txikik:

Ezkon berriak bere barruan
badu ondoren adurra
bañan poz ori geyentxuetan
izan oi degu laburra,
gure lenengo landaretxuak
egin orduko agurra,
guztiya oso ez ote dagon
badaukat naiko bildurra.

Zorionaren jabe ustez ta
engaño baten modura,
nere lenengo landaretxuak
au ekarri du mundura,
sano ta garbi etorri balitz
ortan etziyon ardura,
o, nere Jauna, lagun zaidazu
jasotzen dedan tristura.

Sinis zazute guraso batek
berekin duen pixua
oinbeste egunez amets egiñik
espero zuen usua,
mundu ontara betiko gauez
sortu baitzaigu gaxua,
arren pozetan egon gera ta
ta aizkenian itxua.

*Irigoyenek: Bukatu dute sayoa Zabaletak
eta Lazkao-Txikik. Orain tokatzen zaye Ma-
ttineri eta Arozamenari. Etorri mesedez ga-
yak ateratzeko.*

MATTIN TA AROZAMENA

Irigoyenek: Mattineri puntua:

Biyar urte zar eta
etzi urte berri,

bethi jai-eguna ola
gustatzen zaut neri,
denak pozez gaudela
baitzeraut iduri,
deneri eskatzen zautet
zorion ugari.

Arozamenari puntua:

Ez da txantxetako
aurtengo negua,

ederki zuritu du
mendi ta sorua,
lenbiziko jela ta
gero erasua,
pixkateko kendu digu
gorputzan berua.

Mattini:

Esatera zarrak dio
luze aña zabal,

Nik luzetasun ori
eztut eiten ahal,
bainan ortarako banu
orai aski ahal,
behar nuke pikatzeko
hemen zonbeit nabal.

Arozamenari:

Zer dezu nayago zuk
ardo ala wiski?

ortatik erateko
ibiltzen naiz gaizki,
ardua merke degu,
oi herriz garizti,
askorik eran gabe
bearko deu noski.

Irigoyenek: Ofizioa emango diegu orain alkarrekin teman egiteko. Biok orain amabost urte ezkondu zinauten. Mattinek amabi seme-alaba ditu, ta Arozamenak bat ere ez.

Mattinek:

Ofizioaren esplikatze
ethorri da tenoria,
amabi umekua baita
Mattinek dun familia,
gure etxian arrats guzietz
badago bai umoria,
eta lagun hau bethi triste da
bate umerik gabia.

Arozamenak:

Orain dala amabost urte
biyok ginauden ezkondu,
eta Jaungoikuak gui eztigu
biyori berdin lagundu,
nik seme-alabik eztet eta
onek amabi izandu,
gau eta egun, Mattin maitia,
etzera geldik egondu.

Mattinek:

Amabost urthe eztitut pasa
nekean edo penetan,
alegrantzia izaten baita
haurrak diren familetan,
batian dela batayua ta
bestian komunionetan,
ni bestaz-besta ortxen nabila
orai nere umietan.

Arozamenak:

Zure izketai bear bezela
orain nai diot erantzun,
familirikan eztegu bañan
konsueloz pasa zagun,
gizon txikiyak bizkorrak dira,
begiratu ta ezagun,
fabrikan baten lan eiten bezu
ai zer jornala daukazun.

Mattinek:

Jakin beazu ni haur oiekin
arras kontentu nagola,
eta nai nuke luzaro bizi
segur oino hola-hola,
ta gero ere zabalduko da
Mattin gaizoaren odola,
eta hau berriz zertarako da
fruitu gabeko arbola?

Arozamenak:

Fruturikan gabeko arbola
naiz ta sayatu lanian,
gure Jainkuak ez gaitu ikusten
danak begi berdiñian,
bañan, Mattin, ez nuke egon nai
zure larrun barrenian,
ai zer etorkizuna daukazun
ezkontzen aste'iranian.

*Irigoyenek: Mattini lau puntu zortzi .txi-
kian bertsoa osatzeko: egarriya, larriya, be-
rriya, engañagarriya. Berriz diot: egarriya,
larriya, berriya, engañagarriya.*

Mattinek:

Bertsutan ez bainaiz ni
gaur asi berria,
alere banuen egun
gaitzeko larria,
baina pixka bat kendu dut
aixtian egarria,
nahiz ori den guretzat
enganagarria.

*Irigoyenek: Arozamenari: ugari, kantari,
afari, pelotari. Berriz diot: ugari, kantari.
afari, pelotari.*

Arozamenak:

Gaur dan egunian
zenbait pelotari
parrandan ibiltzen dira
ostatun ugari,
gero egiten dute
gabian afari,
gaberdin ibiltzeko
kalian kantari.

Irigoyenek: Mattineri gaya iru bertso kantatu ditzan. Or aurrean daukazu erriko bez-titzallea, ildakoak jazten dituana, eta iru bertso bota bear dizkiozu.

Mattinek:

Nere lagunak orai eman nau
frangotxo suyet iluna,
orai aiphatu behar dudala
hileta beztitzen duna,
horrekin bakan izaten baita
segur umore una
ala aixago pasa behar degu
al bada gaurko eguna.

Ofiziua hola du eta
behar zayo errespetu,
ogiaren irabazteko
bertze biderik ezpaitu,
guk ere noizbait beharko dugula
ortan badugu irrisku,
guri malura gerthatu eta
beztitzallea aberastu.

Gaizki erranik baldin badiot
ahal nau gaur barkatuko,
nere erranak ez ahal ditu
segur penarik artuko?
bainan hauxe diot bihotz-bihotzez
nik horri desiratuko,
Donostirat ethorri eta
ez ahal naiz behartuko!

Irigoyenek: Arozamenari: Euskalerriko erri txiki batean zaude. Orain berrogei urte errian danak nekazariak ziran. Jendea pobre xamar bizi zan eta etzan ez jauregirik ez txaletik. Gaur erria fabrikaz betea dago. Jenderik geyenak ez baserrietan, fabriketan baizik lan egiten du. Zine eder bat ere badago. Dirua orain berrogei urte bañon askozaz geyago erabiltzen da. Eta jauregi eta txalet ederrik asko jaso da, bañan euskal oitura zarrak galtzen dijoaz. Guzia gogoan artuta, iru bertso.

Arozamenak:

Denbora batez bizitzen giñan
oitura zarrak artuta,
berrogei urtez onuntza orain
dana dago aldatuta,
jende pobriak basarrik ere
bazterren utzi ditu-ta,
zine ederrak eta fabrikak
errian antolatuta,
lengua bera dala erri au
nola esan begiratuta?

Erri onetan lana egiñaz
len ondo giñan bizitzen,
oberik iñun izaten zanik
etzitzaigun iruritzen,
patrikan diru eskax xamarra,
tripa genduan betetzen,
orain ziniak eta txaletak
jende guztiya muatzen,
ori naikua eztala Euskal-
erriko oiturak galdutzen.

Bein baño geyo egon izan naiz
ni nere lagun batzugin,
berrogei urtez onuntz oiturak
nola diguten aldegin,
batzuk basarriya utzi dute
fabrika aben aitzakin,
orduan andik aldegin zunak
zer egiten zun etzakin,
lengo oiturak bildu ditzagun
guztiyon laguntzarekin.

*Irigoyenek: Bukatu dute sayoa Mattinek
eta Arozamenak. Azkenez lendabiziko sa-
yoa bukatzeko kantatu bear dute Lopategik
eta Xalbadorrek. Etorri mesedez biok gayak
ateratzera.*

LOPATEGI TA XALBADOR

Irigoyenek: Lopategiri puntua:

Urumea ibayan
arrairik eztago,

nik ere ez det ein nai
toki artan trago,
azido besterikan
ez bai-da izango,
baña angulak jateko
gerturikan nago.

Xalbadorri:

Apaizak bizi al dira
gu baño obeki?

jaun oien kontra mintza
gaitezen umilki,
itxura obexaguan
dira bai egoki,
baiñan nola bizi berak
norberak badaki.

Lopategiri:

Gizonak jayo ezkeru
eriotza zor du,

bizitzak amaitzia
beti gauz ortan du,
ortik libratutzeko
alperriko gogu,
naiz ta beti guk izan
ortan naiko modu.

Xalbadorri:

Urte zarreko koplak
aspalditik datoz,

urthe zaharra ere
urbil dugu gaurkoz,
nik ere kantu hoier
kentzen dietet poz,
gaur ere kanta dezagun
zabaldurik biotz.

Irigoyenek: Orain ofizioa jarriko diegu alkarrekin teman egin dezaten. Iruna bertso. Biak baserritarrak izango dira. Lopategi baserri baten jabea eta Xalbador baserri ortan berrogei urtean bizi izan dan maizterra. Eta nagusiak, berak erabilli nai zuela baserriya, ta juzgaduz bota egin du maizterra oraintsu baserritikan.

Lopategik:

Baserritikan kanpora leno
bizi izan nintzan suabe,
ta nere lurra onen eskutan
arkitu izan dirade,
oain asi bear lurra landutzen
nago bizimodu-jabe
nerekin bear derrigorrezkoz
zaude zu etxerik gabe.

Xalbadorrek:

Lehen nagusi ona zifian ta
orai txartu ahal zera?
berrogoi urthe badut ni jinik
lanera zure etxera,
etzaut gustatzen zure aldetik
hartu dautazun manera,
utziko othe nauzu orai hortxe
kanpuan gosez hiltzera?

Lopategik:

Nere lagunak orretan badu
nola-alako arrazoi,
bañan niretzat nolatan izan
etxe au gasturikan doi,
derrigorrian eldu zitzaigun
gura ez genduan sasoi,
baña oaindikan nai baldin bazu
izan zaite nere morroi.

Xalbadorrek:

Zer naiz bada ni orai arthean
zuretzat txarra izandu?
zure baserri ori ez du-ta
egin ahala zabaldu
inposible da zuretzat ere
gauza orrek igual du,
zendako behar dut bada orai
lenagotik nik aphanu?

Lopategik:

Nere eskeintza ez duala nai
modu orretan esan du,
arrokeriyak probetxurikan
sekula ez du izandu,
nikin traturik nai ezpadezu
ainbat ariñen aldendu,
aberastuta ondo ziñake
len lana egin bazendu.

Xalbadorrek:

Zendako egin, oi nagusia,
zuk ere hola bekatu?
zure baserri on ori ez dut
santa sekulan ondatu,
lana egiñez aberasterik
izan zaiken ez pentsatu,
zer naiz bada ni aberastu ta
nagusi jauna pobretu?

Irigoyenek: Lopategiri lau puntu bertso bat zortziko txikian osatu dezan: orbela, zimela, motela, upela. Berriz diot: orbela, zimela, motela, upela.

Lopategik:

Aiziak eroaten du
sarritan orbela,
eta aiziak berak
gaur bertso zimela,
zerbait e baldin banintz
izango motela,
obe garbitu banu
ortikan upela.

Irigoyenek: Xalbadorri: milla, abilla, mutilla, kurpilla. Berriz diot: milla, abilla, mutilla, kurpilla.

Xalbadorrek:

Orantxe beharko da
estutu kurpilla,
eta ni ez izanki
ortako abilla,
gaur bertsuetan kanta
banitza nik milla,
orduante nindaik
gaitzeko mutilla.

Irigoyenek: Lopategiri gaya iru bertso kantatu ditzan: Aideplanuan zoazela aberia larri bat gertatu da, ta, parakaidasa soñean dezula, zure burua bota bear izan dezu aideplanotik kanpora. Tresna ortatik zintzilika zoazen bitartean, lurra ikutu baño len iru bertso kantatu bear dituzu.

Lopategik:

Len abioitatican
nengoen aparte,
bein igona naiz eta
egun bertan kalte,
zer modutan nagan
entera zerate,
aritik esegita
nabil komediante.

Arrokeriya nun da
ondo mereziya,
derrigorra enuen
aidian biziya,
begira nola nagon
orain zintziliya,
galdu zait betirako
aizien graziya.

Lenengo aldiz ein det
aizetikan sayo,
iñoz igo ezpanu
askoz ere nayo,
zer da nere patxara?
zertan naiz arrayo?
aizean bizitzeko
gizona etzan jayo.

Irigoyenek: Xalbadorri gaya: Aurrean daukazu mamu bat, txori-malo bat. Eta iru bertso kantatu bear dizkiozu.

Xalbadorrek:

Nik egun hunat ethorririkan
ez dut ez hartu damua,
ta gauza berri bat ikusirik
kontenskorikan banua,
aurrean ortxe zer othe zen ba?
infernutik jin debrua?
eta gero antza eman diot:
soroetako mamua.

Norbaitek ongi egin dauzkizu
barnea eta azala,
pozez zinauden lurran gainean
oxtion zabal zabala,
norbaitek zutaz egin izan du
beretzat egin ahala,
txori gaixtoak izuzkizu ba
ni egin nauzun bezala.

Oi, mamu itxusi lotsagarria,
orai egiten dut irri,
zerbaitetako bide zaituzte
soro oietan ezarri,
eta grazia emaiten diot
ezarri zaituenari,
gure uztaiaren bipilak
urrunxko zitzu igorri.

*Irigoyenek: Lenengo sayoa bukatu da etc
momentu batean juraduak erabakia artu
bear du. Bitartean zai egon artu arte era-
bakia.*

MATTIN TA AROZAMENA

Irigoyenek: (Juradua etorritakoan) Juraduak erabakia artu du. Auek pasatzen dira aurrera:

Mitxelena,

Iztueta "Lazkao-Txiki",

Xalbador.

Eta gero beste bi dauzkagu batera. Eta bi oyek sayo bat egin bearuko dute probatzeko. Oyek dira Mattin eta Arozamena.

Beraz lenengo, zotz egingo degu bien artean zer ordenatan kantatu bear duten jakiteko, eta gero bat, bigarrena tokatzen zayona, kanpora eramango dute Juraduko jaunak eta gordeta kartzela moduko baten egongo da, ezerez entzun ez dezan emen kantatzen dana.

Lenengo, zotz egingo degu.

(Zotz egin ondoren) *Mattin asiko da. Etorri, mesedez, Mattin. Etorri mesedez mikrofonora.*

(Bitartean Arozamena kanpora eramaten dute.)

Iru bertso kantatu bear dituzu gai au go-goan artuta: Gabon-gabeen etxerik etxe eskean ibilli ziñan zure lagun batzuekin. Eta etxe batean luzaroan kantatu ondoren oso diru gutxi, oso eskupeko txikia, eman zizuten. Etxe artako andre zekenari, esku-legorriari, iru bertso bota bear dizkiozu.

Mattinek:

Etxekoandria, pena baitugu
oitura zarren galtzea,
pentsatu dugu zure etxera
ere hola ethortzea,
bihotza baitut nik eskaintzeko
zorionez bethea,
zerbeit xanpun emateko
ireki zazu athea.

Lagun hauekin Gabon-gabian
nabil omore onian,
urthe guziez hola nabila
joan daneko aspaldian,
ta egun hemen arkitzen nauzu,
andre, zure athian,
amoina piskat Gabon ontako
emain duzula agian.

Ni kantari hari naiz bainan
eztu ireki athia,
hemen luzaro kantuz aitzia
neretzateko kaltia,
alere huni eskaintzen diot
urthe luzeren bizia,
Zeruko Aitak erakus bezo
zertsu den karitatia.

*Irigoyenek: Iru bertso oyekin Mattinek
bukatu du oraingo sayoa.*

*Mesedez, Juraduko jaunak, ekarri len-
bailen Arozamena. (Jendeari) Joan dira bi-
lla ta orain ekarriko dutela uste det.*

(Pixka baten ondoren Arozamenari, au
etorritakoan:)

*Gabon-gabeen etxerik etxe eskean ibilli
ziñan zure lagun batzuekin. Eta etxe batean
luzaroan kantatu ondoren oso diru gutxi,
oso eskupeko txikia, eman zizuten. Etxe ar-
tako andre zekenari, esku-legorrari, iru ber-
tso kantatu bear dizkiozu.*

Arozamenak:

Gabon-eguna ogei ta laua
Euskalerriko lurretan
oitur'izan da orain artian
ibillitzeko esketan,
lagun batzuek banituan da
miñarikan ez anketan,
errunik ere ez gendun egiten
sosa artuagatik loyetan,
bañan pen'eman biar du eska-
tutzia gaur zenbait etxetan.

Ate ondora juañ giñaden
eta kantari ekin,
kuadrilla aundi bat antxen geunden
guztiyak geren pozakin,
nagusiya're goratu gendun
Euskalerriko kantakin,
etxeoandria an etorri zan
pezeta txiki batekin,
ai lenbizitik zer eingo zigun
guk iñola ezin jakin.

Gabon-eunian ibilli giñan
etxerik etxe kantari,
t'ondo eitiak ez du baliyo
gaur zenbait person-klaseri,
pezet'at artu ta eskalletan
ainbeste mutil-sallari
begiratu zorrotz egin zigun,
nunbait pen'eman areri,
orrelakuak eztiyo emango
ardotako gizonari.

*Irigoyenek: Bukatu du sayoa Arozamenak
ere eta momentu batean zai egon erabakia
artu arte. Bereala egingo degu.*

(Juradua kanpora dijoa ta atzera etorri-
takoan onela dio): *Artu da erabakia eta au-
rrera pasatu da Arozamena.*

GOIZEKO BIGARREN SAYOA

Mitxelena

Arozamena

Uztapide

Xalbador

Lazkao-Txiki

Basarri

MITXELENA TA AROZAMENA

Irigoyenek: Orain bigarren sayo ontan pasatu diran lau bertsolariak eta gañera Basarrik eta Uztapidek ere parte artuko dute.

Asteko zotz egingo degu sei bertsolarien artean. Egon apurtxo batean.

(Zotz egin ondoren) Ordena onetan kantatu bear dute:

*Lenengo Mitxelenak,
bigarren Arozamenak,
irugarren Uztapidek,
laugarren Xalbadorrek,
bostgarren Lazkao-Txikik,
eta seigarren Basarrik.*

Mesedez, etorri bear dute lenengo Mitxelenak eta Arozamenak. Etorri mesedez mikrofonora.

Puntu biña jarriko dizkiogu bakoitzari.

Mitxelenari:

Zer dago Donostiyako
gauzarik onena,

ori da danok ondo
ekusten deguena,
zorionez beteta
emengo barrena
gaurko egunez Donostiyan
zoragarriyena.

Arozamenari:

Inbiriya da gauza
sendatzen ez dana,

askotan bat bestiai
kanpuan emana,
bestela berriztikan
ixilik esana,
sendatzeko errezatu
Aita-gure bana.

Mitxelenari:

Gazterik gelditu da
mutilla buru-soil,

gaur orrela makiña bat
munduan badabil,
eta ori kenduta
bat elitake il,
gauz orregatik gañekun
bizi laike trankil.

Arozamenari:

Erori nintzan eta
galdu nitun bi ortz,

oker aundik neretzat
orreatik datoz,
birian zegon arriya
ura ere zorrotz,
zer janikan gabe orain
arkitzen naiz ni motz.

*Irigoyenek: Orain iruna bertso kantatuko
dituzte alkarrekin teman. Asiera ematen*

duenak aukeratu lezake gaya orain esaten ditudan auetatikan: pakea, lana, maitasuna, dirua, osasuna, gaztetasuna, adiskidetasuna, familia, edo zuzentasuna.

Mitxelenak aukeratu lezake nai duen gaya. Iru bertso alkarrekin teman.

Mitxelenak:

Aukera asko ipiñi naute
ez dakit nortan astia,
aukera jartzen dan garayean
ordu ederrak ezta,
ta esan naute komeni dala
bat neuretzat bereiztia,
nik aukeratzen detena det ba
osasuna ta gaztia.

Arozamenak:

Ikusten zaitut, Joakin maitea,
nik joan dan aspalditikan,
lanian zabiltz oso fuerte
gorputza're gogotikan,
osasun ori artu dirazu
paper guztin tartetikan,
edertasuna zerekin dezu,
ez dezu ezen faltikan.

Mitxelenak:

Gauza geyago badiradela
esaten dute munduan,
bañan gaztia ta osasunak
zer ondo ematen duan,
batek berekin daukan bitarte
ez du eukitzen goguan,
akordatutzen gera geyenak
denbora jua da onduan.

Arozamenak:

Ai, Mitxelenak danan aurrian,
ai, ditu egiyak esaten,
uste ez degula gaztetasuna
mundutik zaigu juaten,
osasuna're okertzen bada
gaitz txarrak du eramaten,
gau eta egun eon bear genduke
Jaunai eskerrak ematen.

Mitxelena:

Jaungoikoari eskatzen diot
nik beti orren ondasuna,
mundu onetan bizituzeko
ez da alderdi lizuna,
gizona beti sasoikoa ta
berak sobra osasuna,
besterentzako eskeñitzen det
gañeko aberastasuna.

Arozamenak:

Gorabera asko ikusten dira
jayo ta mundu onetan,
zer ez dakigulaik aitzen gera
makiñat aldiz izketan,
ein bear degu ondo maitatu
osasun ori benetan,
zu, Mitxelena, ola jarraitu
beste berrogei urtetan.

*Irigoyenek: Mitxelenari lau puntu eman-
go dizkiogu zortxiko txikian bertso bat osa-
tu dezan: gero, bero, egunero, espero. Be-
rriz diot: gero, bero, egunero, espero.*

Mitxelenak:

Euskalerrian zoriona
oi degu espero,
beti esperantzetan,
obetago gero,
euskaldunak geranak
ortan gaude bero,
Amari erregutuaz
gabiltz egunero.

Irigoyenek: Arozamenari beste lau puntu: oya, goya, sasoya, kapoya. Berriz diot: oya, goya, sasoya, kapoya.

Arozamenak:

Lenguan laister utzi nun
ikatuta oya,
betik jo baitzidaten
norbaitek e goya,
nik ez banu eduki
orduntxe sasoya,
ez nun arrapatuko i-
kulluko kapoya.

*Irigoyenek: Mitxelenak eta Arozamenak
bukatu dute sayoa, eta orain kantatu bear
dute Uztapidek eta Xalbadorrek.*

UZTAPIDE TA XALBADOR

Irigoyenek: Uztapideri puntua:

Erdi tontuak lana
egin dezatela,

or ibilliko dira
lenago bezela,
nik pentsatu gero ala
pentsatzen detela,
ez pentsatu ni golpez
asiko naizela.

Xalbadorri:

Dirua izaten da
askoren ametsa,

gizona ez dadiela
orreatatik ertsa,
noizbait pertza haundi ori
jarriko beltz beltza,
hemendik goiti guttixko
aski da guretzat.

Uztapideri:

Ederki apalduta
etxeratu naiz bart,

an ere billatu nuen
baña naigabe bat,
emazia askotan
asarratutzen zat,
izugarrizko errietak
egin zizkian ark.

Xalbadorri:

Amar mandamentutik
betetzen ditut bost,

bertze bost badirela
gaiten denak orroit,
eta heyen bethetzera
pozez gaiten gu lot,
ortarako Jaunari nik
erregutzen dakot.

*Irigoyenek: Orain len bezela alkarrekin
teman kantatu bear dute. Asiera Uztapidek
emango du eta berak aukeratu lezake gaya
urrengo auetatikan: pakea, lana, maitasu-
na, dirua, osasuna, gaztetasuna, adiskideta-
suna, familia edo zuzentasuna. Iruna bertso
bakoitzak alkarrekin teman.*

Uztapidek:

Gaya aukeratzia da
nere eginkizuna,
Irigoyenek emen
esaten diguna,
baita nik au aukeratz'et,
Xalbador laguna,
onentzat juzgatzen det
beti osasuna.

Xalbadorrek:

Uztapideri jaun hunek
erran behar dako,
hunek osasun duela
izanikan flako,
baduela esaten du
berak urthe asko,
oraino ere bada hau
bertze batzundako.

Uztapidek:

Lenbiziko osasuna
ta gero pakia,
naiz ta lanean artu
alako nekia,
zertarako da beste
gauz asko esatia?
gaizki bizitzeko alperrik
dirua izatia.

Xalbadorrek:

Osasuna ta pakea
biak gauza onak,
hoberik atxemanen
ez baitu gizonak,
gu hemen urrikarri
ortaz ez gaudenak,
badir'asko orietaz
gozatze'ez direnak.

Uztapidek:

Zertarako, Xalbador,
aitzakiz asiyak?
zerbaiten falta dute
munduan biziyak,
Jaungoikuari eman
gindezke graziyak,
iñork ez dauka emen
zorion guziyak.

Xalbadorrek:

Manuel, mintzo nitzaizu
zabalik bihotza,
gure arteko amodioa
ez da arras hotza,
bi dohain oriek onak
dira guzientzat,
guk baditugu ta luzaz
ditzagula goza.

*Irigoyenek: Lau puntu Uztapideri zortzi-
ko txikian bertsoa osatzeko: eguna, illuna,
lurruna, atuna. Berriz diot: eguna, illuna,
lurruna, atuna.*

Uztapidek:

Abendua motxa da ta
badoa eguna,
ordu gutxiren barru
emen da illuna,
nik aditzen det emendik
zerbaiten lurruna,
gaur seguru arrapatu
bear degu atuna.

Xalbadorri: otza, gorotza, kokotza, biotza. Berriz diot: otza, gorotza, kokotza. biotza.

Xalbadorrek:

Abendu-ondarrean da
neguko bihotza,
eta aurten goiz xamar
asi zuen hotza,
atzo're ni han nindagon
daldaran kokotza,
ta hormak gogortu zuen
soroko gorotza.

Irigoyenek: Bukatu dute sayo au Uztapidek eta Xalbadorrek, eta azkenez kantatu bear dute Lazkao-Txikik eta Basarrik.

LAZKAO-TXIKI TA BASARRI

Irigoyenek: Puntua Lazkao-Txikiri:

Apostoluak ere
ez-jakiñak ziran,

begiratu noraño
altxatuak diran,
dotriña zabaldu zuten
munduaren jiran,
Espiritu Santuaz
azkartu baitziran.

Basarriri puntua:

Neskatxak nonaitikan
gonen ordeztuak,

ori ondo daguela
iruritzen al zak?
batzuk zuriak dizkitek,
beste batzuk beltzak,
ez ailla artu beintzat
ayen esperantzak.

Lazkao-Txikiri:

Sukaldean zintzilik
alperrikan bi pertz,

an daude jasorikan
beren kirten da ertz,
ayek serbitutzeko
nunbait ezerre ez,
gañetik txuri bañan
azpi aldetik beltz.

Basarriri:

Zure txakur gaiztoak
atzo egin dit kosk,

ondo aditu ditut
esandako itz ok,
gure Alfontxo ez du
lurreratzen iñork,
txakurrari ez eltzeko
nik esango diot.

*Irigoyenek: Orain len bezela alkarrekin
teman iruna bertso kantatuko dituzte. Asie-
ra Lazkao-Txikik dauka eta berak aukeratu
lezake gaya urrengo auetatikan: pakea, la-
na, maitasuna, dirua, osasuna, gaztetasuna,
adiskidetasuna, familia edo zuzentasuna.*

Lazkao-Txikik:

Emen aukeratzeko
gauza asko daude,
eta al dan ongiena
esan bear au're,
askok egingo dute
“nor da onena?” galde,
ni beintzat ateratzen naiz
pakiaren alde.

Basarrik:

Nundik asiko ziñan,
gaztia, banekin,
nik ere nere aldetik
nai nizuke ekin,
zu pakiaren alde,
ni osasunarekin,
ederki etortzen dira
biak alkarrekin,

Lazkao-Txikik:

Nere ustez pakia
gauza danen abe,
ta dirua jotzen det
grña txarren labe,
bat izanagaitikan
interesen jabe,
an ez da zorionik
pakerikan gabe.

Basarrik:

Interesak etzaizkit
kopetera iyo,
galtzalliak dirala
onek ala diyo,
pakiak e luzitzen du
osahunakin geyo,
bakarka jarri ta oyek
ez dute baliyo.

Lazkao-Txikik:

Biyetan nor dan onena
ez dago esaterik,
ezin bai-da sumatu
tarteko aterik,
osasuna izanda're
ez bada pakerik,
laguna, ez dago or
ondo izaterik.

Basarrik:

Osasunak pakiari
aukera auxe jarri,
esan artian negon
estu eta larri,
beso emanda ibilli
gaitezen alkarri,
konponduko dirade
Lazkao ta Basarri.

Irigoyenek: Lazkao-Txikiri lau puntu emango dizkiogu bertsoa zortziko txikian osatzeko: gariya, gurdiya, txoriya, komeriya. Berriz diot: gariya, gurdiya, txoriya, komeriya.

Lazkao-Txikik:

Gure uzten gañian
mantentzen txoriya,
guk geretzat gorde nai,
au da komeriya,
jan baña len kargatu
dezagun gurdiya,
etxera ekartzeko
soroko gariya.

Irigoyenek: Basarriri beste lau puntu: zerua, aingerua, ingurua, segurua. Berriz diot: zerua, aingerua, ingurua, segurua.

Basarrik:

Goyerritik etorri da
kristau segurua,
ta zeñek ez estimatu
olako aingerua?
txikiya izan arren artu
nere ingurua,
aingerutzako onek
biar du zerua.

BIXIGUA

*Irigoyenek: Orain sei bertsolariai gai be-
ra emango diegu eta bana-banaka kantatuko
dute, baña bertso bat bakarra izango da, eta
doñuak izan bear du edo bederatzi puntu-
koa, edo Iparragirren doñukoa, edo "Aizak
i, motel, mañontzi" doñu ortakoa, edo "Ai-
gure antziñako — guraso nobliak". Berak
aukeratu lezakete doñua, nai dutena.*

*Ta sei bertsolariok or aurrean daukazu-
te bixigu eder bat, bixigu fresko-fresko bat.
Oraintxe bertan arranparrillan errea, eta
baita olioarekin, ozpiñarekin eta barazuria-
rekin maneaturako salsa beroa. Or dago ori
ere. Bertso bat bakoitzak. Asteko Mitxele-
nak.*

Mitxelenak:

*Kezka ematen digu
ein bear deguenak,
emengo otorduak
dira ederrenak,
orko bixigo, oliyo
eta piperrenak,
bixiguentzat dira
gauzik bearrenak,*

jan-zale gaudenak
gerade geyenak,
emen dabillanak
uts zeuzkak barrenak,
zenbat ote gaudezen
jango gendukenak?
zenbat ote gaudezen
jango gendukenak?

Bigarren Arozamenak:

Berak esan dirate
zerbait kantatzeko,
ni emen nago berriz
ikunplitzeko,
bixigua ekarri
usaya artzeko,
piper eta oliyo
ederki jartzeko,
oi guri neurtzeko,
inbirin sartzeko,
gero oztutzeko,
baña ez galdutzeko,
giro ederra dago o-
rain bazkaltzeko.

Uztapidek:

Bazkaltzeko jarri da
sekulako aukera,
ara iritxi zat neri
belarri-ertzera,
gaur nola degun berriz
urte zar bezpera,
gosiak etortzeko
etorri ezker,
plato ori bera
ein arren zartzera
nua probatzera,
zertan ein atzera?
okerrorik ezpada
konpontzen gera.

Xalbadorrek:

Bixigoa hor dago
parrillan gainean,
jateko tenorea
jin da azkenean,
ori ikusi eta
jarri naiz lanean,
jus goxo bat jarri da
ene mingainean

banauka menea
sar laike ohean
eta bai labean
nago xuxenean
hobeki lagokela
ene barnean.

Lazkao-Txikik:

Ni bixigu-zalia
izan nazu beti,
preparatuta jarri
gu orregaiti,
zerbaiten esperantzan
nitzan aspalditi,
lekuak egiñikan
barren alderditi,
jango det gogoti,
noski gaur kanpoti
gosari oigaiti,
gaizki negoneti,
nere gosiantzako
ez dator gaizki,
nere gosiantzako
ez dator gaizki.

Basarrik:

Oliyo eta piperrarekin
zein ez du orrek gozatuko?
bazkari eder bat ez ote degu
egun ontan osatuko?
bixigu begi-gorri,
begira danok orri,
nor ez da inguratuko?
nik desapiyo egiten dizut
etzerala sobratuko.

Irigoyenek: Eta onekin bukatu da seiren arteko sayoa. Orain momentu batean Juraduk erabaki bear du arratsalderako zein gelditzen dan. Zai egon momentu batean.

(Juraduko jaunak deitu eta zerbait esaten diote. Gero:)

Emen esan digute Juraduko maikoak, arratsaldean emango degula erabakia. Beraz, arratsaldeko lauretan puntu-puntuan asiko da sayoa. Ez genduke atzeratu nai ta orregatik etorri puntu-puntuan, al baldin bada asi gaitezen garaiz.

ARRATSALDEKO LENENGO SAYOA

Xalbador

Uztapide

Lazkao-Txiki

Basarri

ASIERA ETA AGURRA

Irigoyenek: Arratsaldeon, jaun eta andreak! Neke askoren ondoan Juraduak artu du erabaki bat goizeko sayoaz. Aurrera pasatu dira:

*Basarri,
Uztapide,
Xalbador,
eta Lazkao-Txiki.*

Aurrean dauzkagu berak, eta arratsaldeko sayoa egiteko, goizean bezela, zotz egingo degu lau bertsolarien artean. Eta gero emen, eskumako eskuan dauzkat gayak, gaur arratsaldean emen zotz eginda atera bear dutenak. Besterik egin baño len, zotza.

(Zotz egin ondoren) Ordena onetan kantatu bear dute:

*Lenengo Xalbadorrek,
bigarren Uztapidek,
irugarren Lazkao-Txikik,
eta laugarren Basarrik.*

Arratsaldeko agurra Xalbadorrek egingo du beste bertsolari guzien izenean.

Emen daukazu mikrofonoa, Xalbador.

Xalbadorrek:

Gauzatxo batzuk badauzkizuet,
jendeak, erran beharrak,
eneganik merezi baitu
Donostia zaharrak,
bertsolariek beren parthetik
zuretzat tuzte indarrak,
bethi zu ihes-lekua
izan zaitzala eskuarak.

Irigoyenek: Agurra bota ondoren asiko du arratsaldeko sayoa. Lenengo agertu bear du-te Xalbadorrek eta Uztapidek. Etorri onera mesedez mikrofonora gayak atera ta kantatzeko.

XALBADOR ETA UZTAPIDE

Xalbadorri puntua:

Ardoak eiten gaitu
gizon danok anai,

ardoaz mintzatzeko
oraintxeño da garai,
lenago ere ez ginen,
Manuel, gu etsai,
len baino adiskideago e-
zarri gaitu orai.

Uztapideri:

Amaika alper aundik
jaten du ogiya,

ortan ibilli bear da
munduan egiya,
langillia indartu ta
bartzartu nagiya,
agintariyak ibilli
zazute begiya.

Xalbadorri puntua:

Or daude exerita
Joxe ta Meliton,

ni ere orai artean
alaxe nindagon,
egin duten bazkariak
egin badeie on,
oraino bertze pixka bat
hola bitez egon.

Uztapideri:

Baztarretan egon da
makiña bat elur,

gu etxian ez giñan
ekaitzaren bildur,
etxian sartu nitun
zazpi gurdi egur,
lengo ekaitz-aldia
pasa degu xamur.

*Irigoyenek: Xalbadorri lau puntu zortzi-
ko txikian bertso bat osatzeko: min, arin,
sorgin, atsegin. Berriz diot: min, arin, sor-
gin, atsegin.*

Xalbadorrek:

Duela zombait urte
banandabil arin,
eta orai gogortu naiz,
zer bi mila sorgin!
junta guzietarik
orai hartzen dut min,
kenduko badauzkidate
har niro atsegin.

Irigoyenek: Uztapideri: zurea, nerea, berea, gurea. Berriz diot: zurea, nerea, berea, gurea.

Uztapidek:

Gaurko egun au bada
gogoan zurea,
ala izan litake
baita ere nerea,
eman bearra dago
bakoitzai berea,
euskerazko gauza da ta
ez al da gurea?

Irigoyenek: Xalbadorri gaya iru bertso kantatu ditzan gai ori gogoan artuta. Xalbador, bart Joxeri etxera zijoala sorgin bat atera zitzayon, ta tiratu zion arria ta sorgiñak karraxika ta buruari elduaz iges egin zuen. Bañan gaur goizean auzoko Mikela burua lotuta agertu da. Zu zera Joxe sorgiñari arria bota zeniona. Iru bertso kantatu bear dituzu Joxeren izenean.

Xalbadorrek:

Huna mutil bat eta hura ni
gauak etxerat derama,
hantxe pausatu behar nuela
oihanean hartu zama,
sorgin bat ortxet athera zeraut
ene maitearen ama,
bazuen harek lendikan ere
sorgin haundiaren fama.

Gero zonbaitek erraiten dute
orai ez dela sorginik,
huna ni zuer mintzo asia
pruebak ontsa eginik,
ez da, ez, sorgin horietan
Mikela orren berdinik,
bi arri ere botako nazkon
ilko nuela jakinik.

Mikela, ez ahal zaizu dolutu
bart egin duzun ertera?
hobeko duzu hemendik goitik
etxean egoiten bazera,
zurea pasatu zen eta
hola ibiltzia kalte da,
zugur baduzu berriz ez jalgi
amoros baten bidera.

Irigoyenek: Orain Uztapideri gaya: Uztapide, urreratu pixka bat. Zure amagiarreba orain egun batzuek dirala il zan. Ta bizi zala, oso gaizki konpondu zihan berarekin. Bart lotan oyea zaudela, agertu zaizu esanaz purgatorioan arkitzen dala ta mesedez beraren alde meza bat ateratzeko. Iru bertso.

Uztapidek:

Ama maitea, ezin zindezke
neri eskatu geyago,
len asarrerik izan ez banu
nuen askozaz nayago,
len zerbait izan bagendu ere
oso damaturik nago,
nik ezer gaizki egin badizut
oso penaturik nago.

Alkar-izketa onik ein gabe
eman zenduen azkena,
baña geroztik biotzetikan
neri etzait juaten pena,
beste erremediorik ez dago,
nik au det gauzik obena:
gure Jainkuak eman dezala
pekatu orren barkamena.

Ez dedillela utsa biurtu
nik egin dedan ametsa,
nik zor guzia ordaindutzeko
orain egin det promesa,
nere amagiarreba maitia,
purgatoyuan entzun beza,
gauz orren faltan baldin badago
aterako diot meza.

LAZKAO-TXIKI TA BASARRI

*Irigoyenek: Bukatu dute eta orain etorri
bear dute Lazkao-Txikik eta Basarrik.*

Lazkao-Txikiri puntua:

Illargiyan jenderik
biziko ote da?

ez da oso xamurra
olako galdera,
askok diote jendia
egongo omen da,
ori obekiena
joanda jakiten da.

Basarri:

Gure ondoren dabil
beti eriotza,

orain odola berua
eta gero otza,
egizko kristau danok,
gaur jaso biotza,
Jaunaren graziz dagona
ez da orren lotsa.

Lazkao-Txikiri:

Juraduak zaituzte
pasatu gaur laurok,

beste aldera pentsatu
zezakiten askok,
guk orain ekarri ditu-
gu ere emen asmok,
lenengo batek ein biar
eta ez dakigu nork.

Basarriri:

Itxas-erri danetan
amaika umezurtz,

olakorikan etzan
etorriko onuntz,
munduan izan arren
zazpi milla izkuntz,
gure euskera maitia
badijoa goruntz.

Irigoyenek: Lazkao-Txikiri lau puntu bertsoa osatu dezan zortziko txikian, len esan degun bezela: laguna, kutuna, eguna, biguna. Berriz diot: laguna, kutuna, eguna, biguna.

Lazkao-Txikik:

Nere onduan daukat
Basarri laguna,
aspalditxotik nuen
aiskide kutuna,
gaur ere iritxi da
biltzeko eguna,
gizon gogorra bañan
biotzez biguna.

Irigoyenek: Basarriri: astiya, pixtiya, bustiya, Donostiya. Berriz diot: astiya, pixtiya, bustiya, Donostiya.

Basarrik:

Kantatzeko Basarrik
artuko du astiya,
Goyerritik etorri da
olako pixtiya,
jan-edan egiñ arren
ez dago bustiya,
Iztuetak ondratzen du
gure Donostiya.

Irigoyenek: Jose Migel Iztueta Lazkao-Txikiri gaya, len bezela iru bertsoan kantatzekoa:

Gaur egunean Ameriketako toki batzuetan bazkalondoan ez dituzte emakumeak garbitzen platerak, gizasemeak baizikan. Iru bertso moda berri orren gañean.

Lazkao-Txikik:

Amerikako modaren berri
badijua beriala,
an gizon batek egin lezake
emakumien itzala,
ez derizkiot ori danikan
Españiko iguala,
an esan leike gizonaezkuak
emakumiak dirala.

Moda berriyak sumaturikan
dira Amerika ortan,
sinistu eziñik egon izan naiz
komeri oyek prankotan,
an emaztiak alperrak dira,
amarrak artian lotan,
alakuaren gizonezkuak
badu eiteko ainbat lan.

Ameriketan emakumiak
suertia dute orduan,
baldin bizitzen baldin badira
esan diraten moduan,
oitura danak berdin egiñik
ez daduzkagu munduan,
ori ola bada obeko degu
alde artara ez juan.

Irigoyenek: Orain Basarriri gaya: Zure auzoan Maritxu izena duen neskatxa gazte eta eder bat bizi zan. Orain urte batzuek dirala, Donostiara neskame etorri zan, ta gaur egunean emakume galdua da, esaten dutenez. Neskame izatetikan atera zan eta gaur egunean ez dauka lan ezagunik. Gaur eguardian Avenida kaletik barrena ikusi dezue automobil batean dotore paseatzen pinta-tuta eta apain-apain. Iru bertso kantatu bear dizkiozu emakume orri.

Basarrik:

Donostin egin biar
zendula serbitzu,
neri esan zidazun,
ene, itxu-itxu,
egun arretan zihan
artafio berritsu,
infernuko indar ori
zeñek eman dizu?
orretarafio jatxi
al zera, Maritxu?

Avenida kalia
begira nenguan,
sonbrerokiko jaun bat
zenduen onduan,
Maritxu, jetxi zera
galtzeko graduan,
ezin egon ninteke,
ni zure onduan,
amaika zure antzeko
badago munduan.

Gaztia ziñan eta
apain da kuttuna,
parre goxokua ta
alako iztuna,
norbait izandua da
zu galdu zaituna
au da Jaunan legiak
eskatzen diguna:
lendabiziko gorde
zer? garbitasuna!

Irigoyenek: Lau bertsolariak lendabiziko sayoa bukatu dute, bañan orain laurak batera onera aurrera etorri eta ofizioa laurai emango diegu. Etorri faborez laurak eta atera dezuten ordenatan kantatuko dezute.

TESTAMENTUA

Irigoyenek: Ofizio bana emango diegu; gai nagusia —gero esango det zeatzago nola dan— Testamentua da.

Egun batzuk dirala baserritar bat il zan eta baserri on eta eder baten jabea zan gañera. Bi seme utzi ditu munduan. Ta momentu ontan eskribauak irakurtzen die seme biei aren testamentua.

Eskribaua testamentua irakurtzen ari dala, gelaren erdian agertzen da aita zana, noski zerutik bueltatu da, beste mundutik itzuli da.

Aitak testamentuan uzten dio seme zarrenari baserri osoa, bere ganadu ta gauza guzietekin, soro ta guzi.

Gazteari berriz, gaizki portatu zala gurasoekin, gañera len ere naikoa jaso zuela etxetikan, eta ez dio ezertxo ere uzten.

Xalbador izango da eskribaua.

Uztapide izango da semerik zarrena.

Lazkao-Txiki izango da seme gaztea.

Eta Basarri aita zana, gelaren erdian zerutik agertua.

Xalbador asten da eskribauaren izenean.

Xalbadorrek:

Orra, mutillak, nik egin behar
ditut hartu tuztan lanak,
ofizioak gradotxo batzuk
eni badauzkit emanak,
ni ez nau ezertan mendratuko
papertxo hunek dionak
huna zer utzi nai dauzazuen
zuen aita maite zanak.

Uztapidek:

Neri aita zanak eman zizkiran
sekulako alderdiyak,
beste gauza bat agindutzen dit
neri zeruko argiyak,
abogadu onek ez baditu egin
gauzak alako garbiyak,
ta beste seme txiki oneri
emaizkazute erdiyak.

Lazkao-Txikik:

Aizken orduko eginkizunak
badu estuaren lana,
bi seme gaitu aita orrek ta
ni len zeozer emana,
bañan badakit eriotz txarrak
estuturikan daukana,
aitona zana, zuzendu zazu
gaur aitak ezin duana.

Basarrik:

Seme gaztiak aitonarentzat
atera digu mintzua,
nik ondo dakit gazte-denboran
etzala oso zintzua,
orri partilla eman nion ta
oni etxe osua,
alare gaurko ume ziztriñak
gaizki artzen gurasua.

Xalbadorrek:

Ene lekua ez da gaur ona,
hauxe da hauxe lan hotza,
Yenko maitea, zuzen gaitzazu,
egiten daizut otoitza,
nik konprenditzen dut aitona
samur orren bihotza,
ez du nai merezi ez duenak
ditzan ondasunak goza.

Uztapidek:

Sesiyuakin ez dago ezer,
bildu gaitzen batea,
zuk ere, lege-gizona, ondo
zeure kontuak atea,
zer balio du deretxo danak
nik dauzkadala esatea?
gezurrik gabe obe da emen
nork berea ematea.

Lazkao-Txikik:

Aita azkeneko arnasaz da ta
ez du arnasik lasatzen,
gu, bi semeak, nori zer eman
biok larri gaude emen,
len pixkatxo bat emanagaitik
berriz ari naiz eskatzen,
aita on baten borondaterik
beñere ez baita amaitzen.

Basarrik:

Borondaterik ez da amaitzen
baña ezin jardun ematen,
gure etxian lanik etzegok
zegon pixka eramaten,
guraso zarragatikan ari
zerate au t'ori esaten,
seme aueri kostako zaye
aita añakuak izaten.

Xalbadorrek:

Huntara ezkeroz ez bedi egin
hemen gehiago kalte,
ni ere beira konpon zadien
egondu naiz orai arthe,
etzazu egin, aitona ona,
biotz on ori bi pharte,
inposible da zuk ez dituzun
zure bi semeak maite.

Uztapidek:

Aita maitea, mundutik juan
ziñan gaur baño lenago,
gure aurrian zaude gaur berriz
eta nik ori nayago,
borondatia izan dezu ta
ezin zindezke geyago,
zerbait sarritan ein badezu ere
dana barkatuta dago.

Lazkao-Txikik:

Bi senideak erentziyagan
zertarako jarrai teman,
aitak beriak ditu diruak,
nork gaur ez diyo antzeman?
aitak arnasa doi-doi dauka ta
itzikan ezin du esan,
zerutikan zatoz, aitona, eta
norentzat biar du eman?

Basarrik:

Seme zarrena zuk etxeari
eutsi zayozu zutik,
seme gaztia ez gastatu zuk
nolanai nere dirutik,
aitanganako gorrotu txarra
kendu zazute burutik,
leziyo auxe ematiarren
jetxita nago zerutik.

*Irigoyenek: Sayo bikain eta eder au en-
tzun ondoren, Juraduak erabaki bat artu
bear du. Izango ditu naiko itilluak noski.
Zai egon bitartean.*

(Juradua kanpora dijoa erabakia artzera.)

FERMIN MUÑOA

Irigoyenek: Ain zuzen ere emen nere aurrean daukat bertsolari gazte bat, aurten Gipuzkoako bertsolarien txapelketan parte artu duen bertsolaririk gazteena. Tolosako txapelketan kantatu eta Eibarreraño allegatu zana.

Zurea dezu mikrofonoa nai dezuna esateko, bañan lasai eta trankil:

Fermin Muñoak:

Nere barrenak ikusitzen du
ainbat arrazoi begita,
zuen aurrera bertso kantatzeko
nola nagon etorrita,
gaurko eguna zar auek ere
nola duten erosita,
nik ere zerbait ikasiko det
auek ondo ikusita.

Gazte artean bertso-sayua
nola baitan mereziya,
ta len e zar auetatik nago
ni're zerbait ikasiya,
t'orain kantatzen pixka-pixka bat
biotzarekin asiya,
gure Jainkuak eman zaidala
osasuna ta graziya.

*Irigoyenek: Juraduak orain erabakia artu
bear du eta ni pentsatzen egon naiz bertso-
lari gazte au bakarrik emen uzten baldin
badegu, ba, or ibilliko dala ardi galdua be-
zela. Bañan Mattin prest dago laguntzeko,
eta erabakia artzen degun bitartean, nik gai
bat emango diet biña bertso egin ditzaten,
eta gero ori bukatzen dutenean gaurko fes-
tari buruz nai dezutena esan.*

*Ta bi bertso oriek ofizioa emanda onela
izango dira: Mattin izango da neskazarra
eta Fermin Muñoa Aita San Antonio Urkio-
lakoa. Bi bertso: neskazarra asiko da eska-
bidea egiten nobiyo bat nai duela, ta bi ber-
tso, eta gero ori bukatzen dutenean, ba,
gaurko jayari buruz, gaurko jayaren gañean,*

*nai dezutena esan, ta bitartean gu etorriko
gera, erabakia emango degu ta jarraituko
degu.*

Mattinek:

Neri gogoia ethorri baizaut
gazte hunen laguntzeko,
ta neri gaya emana naute
neskazarra egiteko,
orai arthian gogorik ez dut
beñe izan ezkontzeko,
bañan oraitxe norbeit nai nuke
nere anken berotzeko.

Fermin Muñoak:

Orain zartzen asiya zaude,
lenxago ziñan gaztia,
gaurko eguneko neskatxak nai ez
zarrarikan ikustia,
ta San Antoniok pentsatu du
gauz auxen esatia:
akaso norbait etorriko zaizu,
ondo portatu zaitia.

Mattinek:

Nere lagunak nekez inen du
aitona zarrain gradua,
eta neri orai jina zaut
neskazarraren gogua,
bien artian guk aiseago
pasa ginion negua,
nik oherat ekarriko dizut
kafea bero berua.

Fermin Muñoak:

Zar auri beira egoten naiz ni
klase askota pentsatzen,
denbora jua eta gero
nola ari dan sayatzen,
egunero otzikan dago,
iñola ez da berotzen,
lenago gauz ori ez al zitzaizun,
ai, mutilzar, akordatzen?

ARRATSALDEKO BIGARREN SAYOA

Uztapide

Basarri

PUNTUAN

Irigoyenek: Artu da erabakia. Gauza zalla izan da. Len ere esan det ixillu aundikoa izango dala, bañan erabaki da.

Aurrera dijoaz Uztapide ta Basarri.

Lendabiziko zotz egingo degu bien artean kantatu bear duten ordena jakiteko. Egon pixka bat.

(Zotz egin ondoren) Onela kantatu bear dute: lenengo Uztapidek, gero Basarrik.

Lenengo, puntu bi bakoitzari len bezela.

Uztapideri:

*Zezena lotutzen da
sudur-mintzetatik,*

*gogoratzen naiz zerbait
zure itzetatik,
baña ateratzen bada
askotan atetik,
ala ere gizonak
galdu izan zetik.*

Basarriri:

Laister egingo zayo
Txirritari jaya,

gizon ura ondrazteko
badegu garaya,
ain zan osasuntsua
gozo ta alaya,
Basarrik badauka beintzat
ai erantzun naya.

Uztapideri:

Urumea-ibayak
kaka-usaya dakar,

zu bezela gogoratzen
gera gu're azkar,
badira akordatuak
makiña bat bakar,
gauz ori ez da utzi bear
tamañ ortan zakar.

Basarriri:

Donostiyan jayo zan
bertsolari Bilintx,

ari egingo dizkiot
orain pare bat itz,
aren bertso ederrak
buelbaka emen dabiltz,
nayago nuke askozaz
gaur bizirik balitz.

Irigoyenek: Uztapideri lau puntu: jator, legor, gogor, zigor. Berriz diot: jator, legor, gogor, zigor.

Uztapidek:

Baserritar guziak
bizi giñan jator,
baña Agozto aldian
egin zigun legor,
orain neguan otzak
asi dira gogor,
baserritarrarentzat
bada naiko zigor.

Irigoyenek: Basarriri: indarra, azkarra, baldarra, ollarra. Berriz diot: indarra, azkarra, baldarra, ollarra.

Basarriri:

Goiz aldian kantatzen
ona da ollarra,
edukitzen duelako
egundoko indarra,
eun da amar kilorekin
ez nago azkarra,
pentsatzen jarrita're
agure baldarra.

Irigoyenek: Orain bietatikan bat, bigarren gertatu dana, Basarri, kartzela moduko ortara eramango dute Juraduko jaunak.

Badaramate. Bi segundo barru ez du ezer entzungo.

UZTAPIDE

Irigoyenek: Uztapide, etorri onera. Iru bertsotan zure bizitza kontatu zazu.

Uztapidek:

Nere bizitza esplikatutzen
egin biar zerbait kantu,
aditzalliak emen daude ta
artu dezatela kontu,
bizimodu onak baziran baño
guk ainbeste fundamentu,
beti pobriak izan gerade
baño bai bizi kontentu.

Zortzi seme ta alabarena
guraso aita ta amak,
gure era ayen babes batian
azi izandu geranak,
premier nuen da nik ontzat artu
nituen ayen esanak,
beti eziñian gabilta baño
pazientziz pasa danak.

Esan dizutet pobre sortu ta
pobre izana naizela,
ta sinisten det urte obiak
geroztik ez datozela,
bañan nik beti bizi nai nuke,
jaun maitiak, bai, onela,
pobrezan Kristo Nazaren bertan
bizi izan zan bezela.

*Irigoyenek: Batzuek diote ona izango li-
tzakeala bertsolariak santu bat patroitzat
izendatzea. Zer deritzazu orri? Ongi iduri-
tzen baldin bazaizu, zuk zein izendatuko
zenduke bertsolarien patroitzat? Iru bertso
gai ori gogoan artuta.*

Uztapidek:

Berriro ere zuek ontzat artu
gure bertso ta kantua,
pozgarri baitzait Irigoyenek
esaten didan kontua,
bear genduke guk zaindari bat,
au ez da gizon tontua,
zein aukeratuko ote det bada
nik guretzako santua?

Golpe batian gauzak ez dira
askotan jartzen buruan,
onek esaten ziradeneko
nik pentsatutzen neguan,
edozein ezin jarriko degu
bertsolarien moduan,
santuak nola egon bear duan
gero Jainkuan onduan.

Sortzen dituzte lagun zar auek
ez dakit zenbat naspilla,
ni berriz orain au esan arte
ez nago oso trankilla,
neure aukera etorri zait ta
ni nua santuen billa,
nere partetik Pedro Maria
Otaño izan dedilla.

*Irigoyenek: Biyar bukatuko dan urte oni
bertso bat bota bear diozu, baña len esan
degun bezela, goizean bezela, naiz bedera-
tzi puntukoa, naiz Iparragirrereren doñukoa,
naiz "Aizak i, motel mañontzi", naiz "Ai gu-
re antziñako — guraso nobliak", doñu orie-
tan. Bat, bertso bat bakarrik.*

Uztapidek:

Oraintxen ere bertso berri bat
emen eskatutzen zaigu,
Irigoyenek urte zarrari
kantatzeko esan digu,
emen dirade lanak,
baño gaur zuek danak
nola zeraten testigu,
urte onek beintzat orain artian
lan txarrik eman eztingu.

*Irigoyenek: Eta bukatzeko beste gai bat.
Gaya de "ama". "Ama" itza gogoan artu ta
iru bertso.*

Uztapidek:

Auxen da gai polita
orain neregana
alboko lagunendik
etorri zaidana,
bertsoak bota bear
emen iru bana,
ortan esango nuke
nik naitasun dana
beste ze esanik ez ta
esanikan: ama.

Amak eman ziraden
lenengo bularra,
andik artua nuen
bertsotako indarra,
geroztik biotzera
datorkit su-garra,
egunsentia joan zan,
laiste illunabarra,
gero ta beerago
Uztapide zarra.

Ama oraindik ere
daukat nik goguan,
pena ez egotia
gaur nere onduan,
Jaungoikuak zerura
eraman zinduan,
laister izango zera
iya saminduan,
baña ni ere or nazu
laistertxo zeruan.

*Irigoyenek: Mesedez Basarri ekarri; Uzta-
pidek bukatu du ta erdi txoratuta utzi gaitu.*

BASARRI

Irigoyenek: (Basarri sartzean) Emen dator Basarri. Iru bertsotan kantatu bear dezuzure bizitza.

Basarrik:

Goguan artua det,
ai, zer esan duan,
lan pixkat egiten det
periodikuan,
berriketaldi batzuk
gero radiuan,
familiko goxoan
andrian onduan,
antxen bizitzen nazu
al dedan moduan.

Erriz erri bertsotan
ibilli biarrak,
an azaltzen ditugu
dauzkagun indarrak,
gozatzen dira gazte
eta berdin zarrak,
eman dizkigulako
ain doai ederrak,
Jaungoiko altsua, nik
biotzez eskerrak.

Irugarrena ere
kantako det garaiz,
tristurarikan gabe
txit arpegi alaiz,
guretzat iñun ez da
biar ainbeste eiz,
milla duroren jabe
izan ez arren iñoiz,
daukadan pixkatekin
gustora bizi naiz.

Irigoyenek: Basarri, batzuk diote ona izango litzakeala bertsolariak santu bat patroitzat izendatzea. Zer deritzazu orri? Ongi iduritzen baldin bazaizu, zuk zein izendatuko zenduke bertsolarien patroitzat? Iru bertsotan esan zazu.

Basarrik:

Alfontxo onen gaya
agertzera nua,
bat biar bagenduke
guk patroitzakua,
Itali aldera naiz
begiratzekua,

seme bat izan zan an
guziz grazizkua,
aukeratuko nuke
Frantzisko Asiskua.

Ura beti ibiltzen zan
desgrazian alai,
txoriari kantatuz,
arrayari're bai,
Frantziskoren fama gaur
zabaldua da nunai,
otso zakarra ere
artzen zuen anai,
nik beste zaindaririk
beintzat ez nuke nai.

Zaindaritzat guretzat
jarri bear dala,
izendatu zazute,
jaunak, bereala,
nik botoa eman det
nola edo ala,
emen ere ikusten det
Frantziskon itzala,
zuek eta ni luzaro
konserba gaitzala.

Irigoyenek: Basarri, biyar bukatuko dan

urte oni bertso bat bota bear diozu, bañan len, goizean egin degun bezela, doñu aue-tan izan liteke: bederatzi puntukoa, Iparra-girrerren doñukoa, "Aizak i, motel mañontzi" edo "Ai gure antziñako — guraso nobliak".

Basarrik:

Anai-arrebok, pasatu zaigu,
pasatu zaigu urte bete,
zartutzen ari gera guztiok,
orrekin daukagu kalte,
gaztetasun nun ziñan?
gu're or izan giñan,
ta orain zaude aparte,
ain urte txarra etzera izan
ta ondo ezkutatu zaite.

Irigoyenek: Orain beste gai bat emungo diogu, eta gaya da "ama". "Ama" izen orrek burura ekartzen dizun asmoa iru bertsoan kantatu bear dezu.

Basarrik:

Argitu nazazula,
Jaungoiko laztana,
badakizu Basarri
gaur kapaz eztana,

aua betetzen duen
izena da "ama",
nola emango diot
merezi dun dana?

Ama ziñan zu ere,
zeruko Birjiña,
Espiritu Santuen
bidez asko egiña,
amatxo, agertzen dizut
nere atsegiña,
nik ez nun kantatuko
zu izan ez baziña.

Ez al du bertso onek
zerutar itxurik?
zeñek neurtu lezake
amaren pixurik?
aitortu zagun danok
ementxe bildurik
ama bat pagatzeko
ez dala dirurik.

*Irigoyenek: Bukatu dute sayoa Uztapidek
eta Basarrik, eta orain erabaki bat artu bea-
rra dago. Ikusiko degu nola ateratzen dan.*

(Juradoa kanpora dijoa.)

SARIAK

Irigoyenek: (Juradoa etorritakoan) Bildu da Juradoa, eta or ixtilluak nolako erabukia eman. Nik sekula ez det ikusi Juradua ain seriyo bakoitzak bere iritzia ematen. Bota du bakoitzak bere papera, eta gertatu da Euskalerra osoko txapeldun: UZTAPIDE.

Bigarren, Basarri. Bañan Juraduak ez luke esango txarragoa danikan.

Urreratu onera biok or dauden sariak jasotzeko. Etorri faborez onera aurrera ta nik esango det bakoitzak zer sari jaso bear duan eta joango zerate Juraduko maira jasotzera. Etorri faborez.

Lendabiziko saria Uztapidek: Gipuzkoa'ko Gobernadore jaunaren kopa bikaña eta txapeldunaren txapela. Txapelduna ori da. Ta gañera amar milla pezeta. Gañera Guisasola Eibarko etxeak eman duen zigarroak gordetzeko kaja bat damaskinadoakin egiña. Joan faborez aurrera ta Gobernadore jaunak eta or dauden jaunak emango dizkizute sari oriek.

Bigarren saria Basarriri: Gipuzkoako Diputazioak eman duen kopa ederra, gañera "jipi-japa" bat, Ameriketan mixiolariak erabiltzen duten orietakoa; gañera bost mila pezeta, eta kartera bat barruan bi mila ta bosteun pezeta geyago dituala, Gurelesa-k emana. Joan faborez artzera.

Uztapidek, txapeldunak, bertso batean bere barruko poza, al duen bezela, agertuko digu:

Uztapidek:

Bertso bat eskatzen dirate emen
sayo onen azkenean,
gaur alakoxe eguna zan da
ezin aspertu lanean,
herriz e izan leike
garisti edo merke
ari biarra onean,
ni zuen morroi beti izango naiz
beartzen zeratenean.

*Irigoyenek: Basarri, emen dezu mikrofo-
noa nai dezuna kantatzeko.*

Basarrik:

Nere burura datorren dana
esan bear det berela,
ez gero pentsa fallo orrekin
nik penik artu detela,
urte askuan nebillen
ta gaizkitxo nebillen,
gaur billatu du epela,
nere lagunik maitienari
eman bai diot txapela.

*Irigoyenek: Euskalerriko irugarren, Xal-
bador. Xalbadorrek jasoko du Donostiako
Ayuntamentuko kopa ederra; gañera iru mi-
lla pezeta eta Irutxulo-k ematen duen txa-
pel bikaña. Ortaz gañera beste bi milla pe-
zeta Fanderiko pentsuak emanak. Joan me-
sedez jasotzera sariok.*

*Mugaz alderdi ontako zure anayei kanta-
tu zerbait.*

Xalbadorrek:

Ni zorionez bethe-bethea
hemen naiz umil-umila,
ez nuen uste gain hartarikan
nindagon orren urbila,
ez pentsa gero jina nintzenik
sari eder auen bila,
bainan eskaini daizkitanari
bihotzetik esker mila.

*Irigoyenek: Laugarren, Lazkao-Txiki. "In-
formación y Turismo" dalako ministerioa-
ren bandeja eder bat eta gañera bi milla ta
bosteun pezeta.*

Lazkao-Txikik:

Beti bezela gaur ere nator
ni, egunsentiko txori,
ori dalako pozaren pozez
astera nua kantari,
nere biotza poz-itxasoan
arinki dabil igari,
txaloakgaiti millaka esker
bildu zeraten denari.

Irigoyenek: Bostgarren, Mitxelena. Jose Lizarazu jaunaren kopa eta gañera milla ta bosteun pezeta.

Mitxelenak:

Nere azkenen gaurko agurrak
ditezela izartsuak,
berrizko ere danok bai gera
zorionen beartsuak,
Euskalerriyai pozaren pozez
bota dizkagu bertsuak,
ta gue urte zarra bukatutzeko
falta'ira ordu batzuak,
berriyan ere izan gaitezen
guziyok zoriontsuak.

Irigoyenek: Seigarren, Arozamena. Guerra anayak motocultor ortan ari diran orien kopa ederra ta milla pezeta.

Arozamenak:

Esker umillak eman nai ditut
danak merezi bezala,
ikusten bai det bein da berriro
berriz alkartu gerala,

Donosti auxe ikusi nayan
ain da txukun da apala,
alde batetik mendiyak dauzka,
bestean itxas zabala,
danon artian alaitu degu
Kantabriyaren egala.

Irigoyenek: Zazpigarren, Mattin. Zarauz-ko Itxaropena-ren liburu-sorta bat; gañera milla pezeta, eta baita ere "González Byass" etxeak ematen duen botilla bat koñak.

Mattinek:

Azkena kantatzeko
orai erran gaituzte,
partitzian nik guziak
eskertu nai nituzke,
zar eta gazte,
gizon ta emazte,
bertze aldi bat arte,
deneri goraintzi eta
ondo bizi zaitzte.

Irigoyenek: Zortzigarren, Azpillaga. Auspoa liburutegiaren liburu-sorta bat, milla pezeta ta "González Byass" etxeak eman duen koñak botilla.

Azpillagak:

Nik kantatzeko ari zerate
danak oska ta didarrez,
lan gutxi egin detala eta
ez jarri, arren, asarrez,
nik gaur zer naukan pentsaturikan
ekarri izan det aurrez,
txapeldunakin betea zegon
Bizkai, Gipuzko, Naparrez,
ainbat nagusi diran artean
neretzat etzegon errez.

Irigoyenek: Bederatzigarren, Lopategi. Añorga-ko Jolas-etxeak emandako erloju bat esnatzekoa, milla pezeta gañera eta "gemelo" batzuek urre gorrizkoak, Arrieta joyeriak emandakoak; eta "González Byass" etxeak botilla bat koñak.

Amargarren, Zabaleta. Eta orrek artzen du erloju bat esnatzekoa, Astrain zillargiñak emandako kartera, milla pezeta, urrezko "gemeloak" eta oriek ematen ditu "Eibarko Adolfo Santo" etxeak. Bosteun pezeta Gráficas Valverde-k emana eta "González Byass" emandako botilla bat koñak.

Gazteenari, gañera, Zubiria jaunak emandako kopa. Zabaletari beraz.

ANTONIO ARRUE JAUNAREN ITZALDIA

Esker milla Euskaltzaindiaren izenean bertsolari-txapelketa nagusi au antolatzen lagundu diguten guziei; batez ere “Centro de Atracción y Turismo” deritzayon elkar-goko gizon prestuei.

Ta zorionik beroenak Uztapide garailaria-ri. Erriak onelako egokieretan esaten dun bezela, guk ere esango diogu berari: Manuel, urte askuan txapela kaskuan!

Zer geyago? Orain urte batzuk Gipuzkoa-ko erri koxkor batean sendagille zar bat, mediku zar bat, bizi zan. Zarra ta gañera alper xamarra noski. Neguko gau otz illun batez, urrutienetako baserri bateko mutil bat joan zitzayon etxera, eta jo zion bizi-bi-zi atea.

Noizbait ere mediku jauna jaiki zan oetik eta leyo-tilla irikiaz “Nor aiz?” galde egin zion mutillari.

—Etxeberritxo-ko seme gaztea —erantzun zion besteak.

—Ta, zer nai dek?

—Gure aita bat-batean gaxorik iltzeko zorian jarri da ta arrixte ikustalditxo bat egitea.

—Zenbat urte zeuzkak?

—Lengo astean larogei bete zitun.

Eta itz auek entzutean, eta leyotilla ixten zuan bitartean, esan zion gure mediku jaunak gazteari:

—Jarri izkazute kandela bi ta kito!

Jaunak! Gure artean ere badira, zoritxarrez, batzu-batzuk mediku lasai aren antzera gure izkuntza euskera gaxorik eta zartua dagoala diotenak eta onena izango litzakeala berari kandela bi jarri ta il-ezkillilla jotzea.

Baña, orratik, Jaungoikoari eskerrak, gelditzen zerate oraindik bestelakoak ere, euskeraganako maitasun iraunkorra biotzean gordetzen dezutenok, gaur emen argi ta garbi ikusi danez; egiztatuaz onela lengo bertsolariak ziona:

Ama Euskera maite dutenak
zenbait euskaldun ondradu
oraindik ere arkitzen dira,
ontan suerte ona degu.

Dana dala, egin ditzagun alegin osoak gu-
ziok, euskaldun guziok, euskaldun izen eder
onen jabe geraden guziok, gure izkuntza
xar maiteak iraun dezan, ez liburuetan eta
paperetan bakarrik, baita bertsolarien ezpa-
ñetan eta erriaren aoran ere, bizi-bizirik, se-
kula guzien sekuletan.

Jaungoikoak arratsaldeon dizuela guzioi
eta Berak nai duan arte.

*(Donostiko txistulariak "Agur Jaunak"
jotzen asten dira ta oyala ixten da.)*

A R K I B I D E A

Itz-aurrea	7
Goizeko lenengo sayoa	17
Asiera ta agurra	19
Azpillaga ta Mitxelena	23
Zabaleta ta Iztueta	34
Mattin ta Arozamena	45
Lopategi ta Xalbador	56
Mattin ta Arozamena	67
Goizeko bigarren sayoa	73
Mitxelena ta Arozamena	75
Uztapide ta Xalbador	83
Lazkao-Txiki ta Basarri	90
Bixigua	97
Arratsaldeko lenengo sayoa	103
Asiera ta agurra	105
Xalbador ta Uztapide	107
Lazkao-Txiki ta Basarri	115
Testamentua	123
Fermin Muñoa ta Mattin	130
Arratsaldeko bigarren sayoa	135
Puntuan	137
Uztapide	142
Basarri	147
Sariak	152
Antonio Arrue jaunaren itzaldia	159

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso asko.
- 5.—P. M. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERREN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak
ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).

- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURI.
- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Piarres Larzabal
IRU ZIREN.
- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDES-KO GERTAERAK.
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
- 22.—Bertsolariak
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).**

